

Euskara ikastaroetarako laguntza eskaera

Zizur Nagusia

Xedea

- Euskara ikastaroetarako laguntza eskaera.

Organo kudeatzailea

[Kultura Patronatua - Zizur Nagusia](#)

Eskaera aurkezteko epea

- 2006ko urriaren 31a arte.

Organo erabakitzailea

- Udaleko Kultura Patronatua.

Onuradunak

- 9.956 €-tik beherako irabazi garbiak dituzten 16 urtez gorako pertsonak izanen dira laguntza hauen onuradunak.

Aurkezteko lekua

[Zizur Nagusiko Udaleko euskara Zerbitzua](#)

Eskaera bideratzeko epea

- Ez dago.

Dokumentazioa

Ondoren aipatzen den dokumentazioa aurkeztuko da ikastaroa bukatuta:

- Udaleko Kultura Patronatuari zuzendutako eskaria.
- Zizur Nagusiko errolda ziurtagiria.
- Eskatzailearen lan egoera zein den adieraziko duen dokumentua. Langabezian baldin badago, INEMen ziurtagiria, zeinean langabezian dagoela eta laguntzarik jasoz gero, zenbatekoak den adieraziko baita. Ez da ziurtagiri gisa onartuko langabezia txartelaren kopia.
- Lanean bada, sarreraren ziurtagiria (enpresak emana) aurkeztu beharko du, eta horretan eskatzaileak 2005eko uztailetik 2006ko ekainera bitartean izan dituen sarrerak zehaztu beharko dira.
- Ikastaroa egin duela (datak, eskola orduak, maila eta eskatzailearen etekina) eta banku transferentziaren bitartez matrikula ordaindu duela adierazten duten ziurtagiriak.
- Eskatzailearen kontu korrontearen zenbakiaren banku ziurtagiria.
- Udal zergen ordainketan eguneratuta dagoela erakusten duen ziurtagiria.

Aldaketa data 2006/04/28

Iraunaldia 2007/02/15